

# Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1997ko ekainak 27

Usurbil, 23. Zenbakia

Sei egunetan  
etengabeko festa



**HILDAKOAK**



1997-6-19  
**Dionisio Aizpuru Urkizu**  
64 urte  
Kalezar



1997-6-20  
**Juan Manterola Gomez**  
94 urte  
Aginaga

**JAIOTZAK**



**Iñaki Lizaso Olasgasti** (1997-06-14) Kaleberri

**Endika Arkarazo Silva**  
(1997-06-11)  
(Atxegalde)

**Laura-Isabel Sarasola Telleria**  
(1997-06-14)  
(Usurbil sakabanatuak)



Usurbilgo Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

3 3 5

usurbildar bazkide ditu  
Noaua!-k  
Zu ere egin zaitez bazkide!



Kultura sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

**Ugarte**

SANTIXABEL ZORIONTSUAK  
OPAK DIZKIZUEGU DENOI!

Santixabel zoriontsuak!

Tif.: 36 26 73 - 36 12 03 USURBIL

Santixabel zoriontsuak  
opak dizkizuegu denoi!

ar oztegia

Aginagatik Kalezarrera lekualdatu gara,  
eta orain Ugarte industrialdean gaude zuen zerbitzura

Tel. eta Faxa: 37 12 21

# Zer irizten?

## Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

**Argitaratzailea:** Noaua!  
Kultur Elkarte. Kale Nagusia,  
37 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)  
Tlf. eta faxa (943) 36 03 21.  
e-mail:  
Noaua.mandio@redestb.es

**Zuzendaria:** Olatz Altuna.

**Kazetariak:** Ainhoa Azpiroz,  
Idoia Torregarai, Josu  
Aranberri, Garikoitz Udabe.

**Kolaboratzaileak:** Pedro Mari  
Matxain, Nere Amenabar, Ines  
Kamino, Leire Atxega, Iñaki  
Labaka, Iratxe Begiristain,  
Begoña Zubiria, Amagoia  
Mujika, Xabier Arregi, Pako  
Agudo, Alfonso Vidal, Nieves  
Aranburu, Luis Aranalde eta  
Zalao Arnaiz **Administrazioa:**

Arantxa Usarralde, Aitor  
Pikabea eta Nerea Kamino.  
**Erredakzio Kontseilua:** Olatz  
Altuna, Garikoitz Udabe, Jose  
Jabier Furundarena, Iñigo  
Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu  
Aranberri, Ainhoa Azpiroz.

**Maketazioa:** Susana

Martin. **Argazkia:** Joxe Antonio  
Labaien. **Informatika:** Pili Liza-  
so. **Banaketak:** Mertxe Jimenez,  
Txelo Vidal eta Iker Muguruza.  
**Sukaldaria:** Joxe Mari Sarasola,  
**Tirada:** 2.200 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza,  
Industrialdea 1 - 2, 20.160  
Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak  
ez du bere gain hartzen aldiz-  
karian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik.



## Frontoi berria

**Aitziber Unanue  
Nagore Leoz**

*Diseinu grafikoko ikasleak*

Jadanik amaitzeaz dago gure frontoiaren berrikuntza, eta honek ematen du zer pentsatua.

Frontoi zaharra busti egiten zela eta konpontzen lanak egitea erabaki zen, Baina orain dagoen bezala ez ote da bustiko? Guzti hau denborarekin ikusiko da.

Frontoiaren kanpoaldea ikusita aldaketa ederra eman du, Zumetaren artlanak jarraipena baitu era honetan, Batistaneko aldetik jarri dituzten jardinerak eta keramikazko plakekin. Bertan agertzen diren irudiak arrain eta olatuak omen dira. Plaka hauek Buztinzulo keramika taldekoek egin dituzte. Era honetan kalea atseginagoa geratu da. Bestalde, muga arkitonikoak deuseztu dituzte ezinduentzat arrapala bat jarritz.

Materiale desberdin ugari erabili dituzte. Frontoi zaharren materiale pobreen aurrean, kobrea, hormigoia, kristala... erabili dituzte berrian.

Frontisaren parez-pare dagoen elementuak estilo plastizista dirusi, Mondrianen teoria aplikatuz, espresio bideen sinpleta-

suna eta bertikaltasunak erabil baitira; angelu zuzenak eta oinarriko koloreak.

Orain ikusten dena frontoiaren itxura berria da. Frontoira sartze hutsarekin frontoi zaharrak ematen ez zuen goxotasun eta argitasuna lortu baita egurrezko sabaia jartzeagatik, kolore aldaketa ahaztu gabe, noski. Izan ere, frontoi zaharraren kolore konbinaketa nahiko tristea zen oraingokoaren aldean.

Bestalde, sabaia eusteko erabili dituzten bi zutabe hauen kokapena ez zaigu egokia iruditu, frontoiaren barnealdetik jarri baitituzte traba eginez. Aldi berean zutabe desberdinak jartzean helburua estetikoki irabaztea baldin bazen helburua, gure ustez ez dute lortu.

Hala ere, orokorrean lan txukuna egin dutela iruditzen zaigu.

**PORTADA: Taratxun txaranga, Jesus Mari buru dela, Etxebeste kaletik gora joan den urtean.**

Lizardi

liburudenda



~~Liburuzkoak opa ditzazuegu usurbilgo guztioi~~

Etxebeste, 1

Tlf.: 36 11 15



**TXIRIBOGA**  
**TABERNA**

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Ondu  
pasa  
sartzenbetea!

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13



Hona hemen zubietarrak lanean, sagar bitzen alajainkoa!  
Usurbil UEMAn sartu zenean, ekainaren 15ean ateratako argazia duzue. Bertan, Kaleberri, Kalezar, Zubieta, Urdaiaga, Aginaga eta Txokoaldekoek lokotx biltzen, arto aletzen, frontzan... nahiko lan izan zuten. Azkenean, kalezartarrak irabazle. Zorionak!

# BORDATXO edaritegia

PINTXO BEREZIAK  
ETA AUKERA ZABALA

Aritzeta, 2

Tel.: 37 10 42

**Noaua! Kultur Elkarteak santixabel zoriontsuak opa dizkizue usurbildar guztioi!**



**arrate**  
zahar egoitza  
taberna-jatetxea

**Jai zoriontsuak usurbildar guztioi!**

Aginaga

Tlf. 36 63 40

**Jai zoriontsuak!**



**Usurbil Autoak, S. C. L.**  
Zerbitzu Ofiziala



Zumartegi industrialdea  
Aitezarra kalea, 1  
Tel.: 36 10 79 Usurbil

**AGIRREZABAL estankoa**

**Jai zoriontsuak usurbildar guztioi!**

Kale nagusia, 27  
Telefona: 36 11 10

*Haur jantziak*



Ondo igaro festak!

Kale Nagusia, 2 Tel. 36 5943

*Ôndo pasa festiak!*



San Esteban kalea, 1  
Usurbil

Tlf 36 00 80

**BITXITEGI ARREGI ORDUKARI**



Zorionak herriko festetan!

Kale Nagusia, 2

Tlf. 36 40 58





## MARI KRUZ SEGUROLA BILLARAGAIN

**69 urteko emakume hau 22 urte zituela etorri zen Txokoaldera bizitzera. Baina hori baino lehenago, Aginaga eta Donostian bere bizitzako urte batzuk utzi zituen.**



### Nongoa zara jatorriz?

Erreterian jaioa naiz eta Aginagako Gorostidi baserrian hazia. Baina gaztetatik Donostiara joan nintzen neskame.

### Eta zer moduz joan zitzazun bertan?

Konde batzuren etxean lan egin nuen sukaldari hiru edo lau urtez, ezkondu nintzen arte. Etxe aberatsa zen hura, nitaz gain beste bi zerbitzari zituzten eta!

### Lan ugari izango zenuen, ezta?

Bazkari eta afari asko egiten ziren etxe hartan. Obispo eta elizako haundi jende asko etortzen zen etxe hartara, izan ere, etxeako andrea "Acción católica"ko zuzendaria zen eta...Bestetik, erosketak egitea nire kontua zen; San Martingo plazatik nahiko buelta egina nago! Oraindik gogoratzen naiz, afaltzeko beti arraina jaten zen etxe hartan.

### Eta zer nolako sukaldaria zinen?

Ez dakit horrela zen, baina gogoratzen naiz behin obispo batek "qué buena cocinera tienes" esan ziola etxeakoandeari. Asko poztu zidan horrek.

### Eta lana zergatik utzi zenuen?

Ezkondu egin nitzelako. Senarra Irubiden ezagutu nuen eta bakarrik ez zuela egon nahi eta azkenean ezkondu egin behar!

### Eta lantokian arazorik sortarazi al zizun horrek?

Beno, behin Jexux eta biok Oialumetik gentoze-la tranbia izorratu egin zen eta hantxe geratu ginen ez aurrera eta ez atzera. Eta noski, etxera sartu behar zen ordu horietan. Eskerrak beste bi zerbitzariak lagunak nituen eta atea irekita utzi zidaten!

### Ederraz libratu zinen, orduan.

Baita zera ere! Etxekoandreak jakin zuen zer gertatu zen, eta erretolika ederra jaso nuen: ez zutela hori espero nigandik eta antzekoak. Nik, berriz, ez nuela nahita egin esaten nion. Orain badirela "txibatoak", baina orduan ere norbaitek esan zituen esan ez beharreko batzuk.

### Txokoaldeko Torre etxeaz zu arduratzen zara, ezta?

Bai, senarra eta biok 40 urte baino gehiago daramatzagu hura zaintzen. Nik etxea garbitzen dut eta senarra, berriz, lorategiaz arduratzen da. Hasiera batean soziedade gainera etxean bizi izan ginen, baina Torre etxearen ardura hartu genuenean nagusi zaharrak etxe honen giltzak eman zizkigun. Eta ordutik hona hemen bizi izan gara, Toki-alain.

### Eta etortzen al dira jabeak bertara?

Ez, ia beti hutsa dago, eta hori nabaritu egiten da, zahartu eta "estropeatzen" ari baita etxe eder hau. Hori dela eta, garbiketa ondo etortzen zaidanean egiten dut. Gainera, askotan pentsatzen dut zergatik garbitzen ari naizen, inor ez badago bertan.

### Etxeko martxa ederki hartua duzu, beraz.

Bai horixe! Pentsa ezazu hiru etxe ditudala nire karguan: nirea, Torre etxea eta gainera Ambrosio Iparragirrenen baserria ere bai.

### Baina lanaz gain beste zerbaitek egiteko tartea ere hartuko duzu.

Bai, Usurbilgo zahar etxeak antolatzen dituen bidaia guztietara joaten gara. Pasa den maiatzean ere 11 egun pasa genituen Galizian. Eta hurrengo egunean uholdeak izan ziren. Hura bai ongi etorri ederra izan genuena!

**Esnao**  
**Usaindegia**

Ondo igaro  
festak!

Zubiaurrenea, 3  
Tlf: 36 25 55

Barrako arropa-lanak eta  
etxeako arropak  
Santixabel zoriontsuak  
opa dizkizuegu!

Aritzeta kalea, 1  
telefonoa: 36 17 87

**USURBI**  
**Gidari eskola**  
**Santixabel o**

Bizkarre, 4  
Usurbil

☎ 36 27 93

Ana  
ianaridenda

Borda berri, 3  
Usurbil

☎ 36 57 92



## AGINAGA



**Iratxe Begiristain**

### Aginagako maisu eta maistraren agurra

**A**ginagako eskola txikiko **Jexux Begiristain** eta **Miren Zaldúa** maixu-maistrak agur esan digute 12 urte pasa ondoren. Aginagan izan ditugu 1985az geroztik, eta hemendik aurrera, Donostiako ikastetxeetan arituko dira irakasle lanetan.

Azken hamabi urte hauetan aginagatar ugari egon da bi irakasle hauen eskuetan. Joan den ekainaren 22an, Aginaga Sagardotegian egin zen bazkarian agurtu zituzten maisu-maistrak. **60 pertsona inguru** bildu ziren **bazkarian**, haur eta guraso, guztiak bi irakasleak agurtu nahian.

Bazkari amaieran, berriz, opari banaketa. Haurrek opariak eman zizkieten beren irakasleei eta ez hori bakarrik, ondoren han bildutakoen artean bertso bana eskeini ostean azken kurtsoko ikasleek txirularekin abesti bat jo zuten.

Beraz, aginagarron partez agur biei eta **mila esker** burutu duzuen lan guztiagatik. Eta nola ez, ongi etorri datorren kurtsuan etorriko diren irakasleei

## TXOKOALDE



**Iñaki Labaka**

### Erreka agerian uztearen alde eta kontra

**S**arritan zer idatzi aukeratzerakoan komeriak izan badituz, oraingoan eta pisk baterako, uholdeak eragindako kalteak direla eta, zer konstatua izango dudala iruditzen zait.

Hasteko, Eusko Jaurlaritzaren aginduz, iragarrita zegoen bezala, **Errementaldegi base-rritik** Oria ibaia bitartean **erreka agerian** jarri dute. Hiru kamioi makinak burrunba galantarekin zulatzen zuen hormigoia eta azpian zeuden harriak **Atallura** eramaten ibili dira etengabe. Egun hoietan ez zen giro. Kotxean lasai ezin ibili, lokatza nonnahi, a ze kuxidada! Lanak bukatzean bazterrak garbitu behar derrigorez.

Erreka agerian uzteko erabakiak **eztabaida piztu du** auzoan. Behin erreka gehiago sakondu eta zakar guztiak atera dituztenez, berriz tapatu egin beharko litzatekeela esaten dute batzuk, urtean behin makina txiki batekin azpiak garbitzeko kondizioarekin. Izan ere, hauen ustez, 23 urtetan hor azpian pilatu den zikinak zerikusi handia izan du hon-

damendi honetan.

Beste batzuk, agian sustoa-  
ren eraginez, agerian uzteko-  
aren aldekoak dira. Hala ere,  
erreka agerian uzteak, kotxe-  
ak uzteko lekuak ezabatuko  
ditu, eta auzoan dauden jate-  
txeek jende asko erakartzen  
dutenez, **aparkatzeko arazoak**  
izango dira. Lehen ere, aste-  
bukaueretan, bazter guztiak  
beteta izaten genituen sarri-  
tan, orain arazoa areagotu  
gingo da. Astebukaueretan  
**Berriolako aparkalekura** joa-  
ten ikasi beharko dugu eta  
Txokoaldera bisitan etortzen  
direnei hara joaten erakutsi.

Bestalde, dagoeneko ia hila-  
bete pasa denean, **peritoak**  
**ez dira etxe guztietara iritsi** kal-  
teak tasatzera. Etortzen dire-  
nean ezer ez dela gertatu  
esateko gai dira horiek.  
Beraiek kobratu behar dute-  
nean segituan etortzen dira,  
baina pagatu behar dutene-  
an presarik ez!



**PORTUARRONS**

**ITURGINDEGIA  
BAINUKO  
ALTZARIAK**

*Santitas*



Kale nagusia, 2-2-2D  
Tlf. Denda 36 46 37  
Etxea 36 52 99

**GALARRAGA  
GARRAIOAK**

\* LUR ONGARRIAK  
\* ZABOR BILKETA  
\* ZISTERNA BEREZIAK

*Ondo pasa festa!*

☎ 37 01 46

ZENDOIA-ENEA

TABERNA

Goizeko 7tik irekia  
Gosariak, nahaiкетakoak,  
egenerako menuak eta  
bokatak

*Donostia*

Kale Nagusia, 25 Tlf. 36 25

## KALEZAR



**Pedro Mari Matxain**

### Ohitura zaharrari eutsiz: San Juan

Izenburu hauxe eman zion **Noaúa!**-k azken aleari. Niri galdetu besterik ez zuten lehen San Juan sua nola egiten zen jakiteko. **Kaletarrekin etengabe borrokan** ibiltzen ginen **San Juan eguna** gerturatzen zenean. Garai hartan, ez genuen egurrik erabiltzen, ezta kanpotik egurra ekartzen ere, larrarekin egiten genuen sua. Kaletarrek berea eta guk gurea. **Elkarri larra kentzen** ibiliak gara makina bat aldiz eta muturjoka ere zer esanik ez.

San Juan bezperan abesten genituen koplak ziren onenak. Aurreko alean atera balituzte, hobe, baina San Juan eguna pasa arren aurten bi kopla hauek bota gabe ez naiz geldituko:

*"Han goien goien lainua dago haren azpian otsua arkakoxuak itoko al ditu Kaleberriko atsuak"*

*"Han goien goien otia haren azpian loria Kaleberriko atso guztiak kamixa kakez betia"*

## KALEBERRI



**Ines Kamino**

### Frontoiko estalkia eta inaugurazioa

**S**antixabelak gainean ditugu, frontoiko estalki berriaren lanak amaitzean daude, Peña Pagola-Andatzpek pelota ekitaldi ugari antolatu ditu ekainaren bukaerarako... **fiesta giroa usaitzen da** herriko kaleetan. Hala ere, estalkia dela eta ez dela, kezkatu gaude. Joan den ekainaren 21ean euria egin zuen eta **frontoian itogin bat baino gehiago** zegoen. Laister konponduko ote dute! Bestela, ederki gaude, estalki berria eta lehen baino ur gehiago pilotalekuan. Horrez gain, bai Irazu, baita



Etxebeste kalean ere sarreran **adokin berriak** jartzen ari dira.

Orain dela gutxi, herrian burdindegi baten beharra zegoela aipatzen zuten Nievesek. Le-

hen zegoena itxi egin zuten eta zerbait nahi izanez gero kanpora joan behar izaten genuen. Baina lasai! Ekainaren erdi aldetik **burdindegi berria** daukagu, eta gainera lehenengo leku berean.

Azkenik korreos aurreko parkean dagoen txiristraren egoera tamalgarrria da. Estalkiaren zati batzuk airean daude.

## SANTUENEA



**Pako Agudo**

### Santuenea eta Ameri bitartean iluntasuna

**E**kainaren 1ean uholdeak izan ziren Usurbilen. Santuenean Ori ibaia ez zen goraino igo, baina erreka txikiak erabat aldatu dute Santuenea eta Zubieta arteko bidea. **Lokatza** edozein tokitan, **zuhaitz eroriak** nonnahi... hori da Zubietara paseatzera joaten den edonork ikusten duena. Hala ere, beste zerbait salatu nahi dut nik. Izan ere **Santuenetik Zubietara** abiatzean, **Orbeldi presa inguruan argirik ez** dago. Badakit orain 10.000ak inguruan iluntzen duela, baina ordu txiki hoietan bidean ibili nahi duenak beldurra pasa beharra du, argirik gabe ilun egoten baita Ameri arteko bide hori.

**L6 T**  
**HARATEGIA**  
*Ordo ibili*  
*herriko festatan*  
 Atxega Alde, 34  
 Usurbil ☎ 36 57 42

*Santixabel ari*  
**elexpe**  
**SOLARIUN**  
 bono bereziak  
**ileapaingegia**  
 Olarrondo kalea, 1 20170 USURBIL TLF 37 04 62

**JANTZIÁK**  
 Santixabelak  
 ondo pasa!  
*Lege ondoren beharpenak!*  
 Erdiko kalea, 2  
 Tel:37 34 81

## Amaierarik gabeko historia

**D**agoeneko Galtzara-gainako etxeak eza-gunak dira herrian. Orain dela 5 urte hasi ziren obrak lehengo fasean eta jendea bizitzen ere jarri da. Historia laburra dute oraindik etxe hauek, baina beltza, oso beltza.

**Galtzaragainako 1go faseko** etxeen arazoak **Anaiak** enpresa eraikitzailea desagertu zenean hasi ziren. Enpresa honen kargu zegoen babes ofizialeko 45 etxebizitza, 105 garaje eta etxe azpiko bajuak eraikitzea. Hasi, hasi zen obrak egiten, baina bukatu baino lehenago porrot egin zuen enpresak. Dena zegoen bezala utzi eta desagertu egin zen.

Hasieratik **Kutxak** finantzatu zituen obrak, eta Anaiak desagertu zenean, berak hipotekatatu zituen enpresaren izenean zeuden lokalak. Izan ere, etxe guztiak salduta zeuden, baina garaje batzuk ez. Kutxa lokal hauen jabe egin zen, baina obren jabe ez, noski. Gainera, hasieran hitzartutakoa baino 75 milioi gehiago jarriak zituen eta ez zuen gehiago jartzeko asmorik.

Beraz, obrak bukatu gabe zeuden eta bertan lanean zebiltzan asko ere kobratu gabe. Noren esku zegoen hauei ordaintzea? Eta obrak bukatzea? Eta agertutako akatsak konpontzea? Nork zuen Anaiak dirurik gabe gelditzearen errua?

Etxebizitzak bukatuta, baina nola...

Arazo hau sortu zenerako etxebizitzak bukatuta zeuden. Baina nola? Hori beste kontu bat da. Bizilagunei galdetu besterik ez dago. "Bukaera desastre bat izan da" dio adibidez **Maria Jesus Azpillaga** bizilagunak. "Etxe guztiak akats bat edo beste izan dute. Hori hasieratik ikusi genuen eta enpresa eraikitzaileari konpontzeko eskatu genion. Honek Etxebizitza Sailak ez ziola baimenik ematen esan zigun. Orduan, Sailara joan ginen paper guztiakin eta han enpresak konponketak egin behar zituela esan ziguten". Horrela, eraikitzaileari hori esan zioten bizilagunek, baina azkenean ez zuen konponketarik egin.

Anaiak enpresaren porrotak sortu ditu arazo guztiak

Etxe guztiak ez dute arazo bera izan; batzuek besteek baino akats gehiago izan dituzte. Maria Jesusek berak zorte txarra eduki duela esan digu: "Urtebete pasa dut nire etxean erreformak egiten. Etxe berria erosi dut, eta gainera askoz diru gehiago gastatu beharra izan dut. Nik nazka-nazka eginda bukatu dut".

Garajeak okerrago

Etxebizitza horien azpian 105 garaje daude, eta hauetan ere gora-behera haundiak izan dira eta daude oraindik. Proiektu gisa legalizatuta daude, baina garaje aktibitate bezala ez. Zergatik? Hutsune asko daudelako oraindik: garaje askotan ura sartzen da, su-detektagaiek ez dutefuntzionatzen eta izuaren aurkako aterik, suitzalgailurik eta haizagailurik ez dago.

Enpresa eraikitzaileak horrela utzi zituen gauzak, bukatu gabe eta lanean parte hartu zuten beste enprekin zortetan. Horregatik, hauek kobratu arte ez dutela beren lana bukatuko diote. Beraz, nork ordaindu behar die? Hor dago gakoa. Alde batetik Kutxa dago, eta bestetik Udala.

Kutxak Anaiak-en garajeak eta bajuak hipotekatuta dauzka. Baju hauek ez dira komertzialak, baina Kutxak komertzial bezala legezatu nahi ditu eta beste garaje batzuk, berriz, komertzial bihurtu. Aldaketa hori egiteko kanpotik atea jarri behar zaie. Eta horretarako, garaje jabe guztien sinadura behar du. **Javier Arruti** eta **Jose Antonio Elorza** dira jabeetako bi eta arazo honetan buru-belarri dabilzianak. Hauek argitu digutenez, "garaje eta baju hauek Udalak baimendutako proiektuan zeuden, baina ez ziren

Santxabel zoriontsuak denoi!



**MAPFRE**  
ASEGURUAK

Ana Olasagasti

Etxebeste kalea, 9  
20170 Usurbil Tlf. 36 00 83

TABERNA-JATETXEA



Santxabel zori!

**ANTAXETA**

EGUZKITZA, 4  
20.170 USURBIL

TEL: 37 03 44

okindegia  
gozotegia



**MARY**

Gaztañazpi, 1 - Tel: 37 10 80  
15033L

Santxabel zoriontsuak denoi!





egin behar Etxebizitzen Sailak daukan araudietako portzentai pasatzen zutelako. Horregatik, orain, horiek mar txan jartzeko bizilagun guztien sinadurak behar dituzte. Bizilagun gehienoi eskrituretan klausula bat sartu ziguten ezer jakin gabe, eta baimen hori ematen zitzaion. Baina beste 38k salmenta libreko garajeak erosi zituzten, eta hauei ez zien klausula hori jarri. Beraz, hauek sinatzea falta da".

Baina oraindik ez dute sinatu. Lehenengo Kutxak obrak bukatzea nahi dute eta Kutxak, berriz, lehenengo sinatzea nahi du. "Baina horrek ez digu obrak bukatuko dituenik garantizatzen. Gu prest gaude notario aurrean obrak bukatu ondoren sinatzeko konpromezua hartzea, baina Kutxak ez du onartzen". Horregatik, tira-bira hauek direla eta, gauzak ez du aurrera egiten.

Bitartean Udala gauzak konpontzeko ahaleginetan dabil. 100 milioiko abala zeukan

horretarako eta **Joxe Antonio Altunak** dienez bi gauzetarako bideratu da, lehenengo: lurjabeen etxe eta bajuekin ordaintzeko eta proiektuak dioena bukatzeko

obrak amai ditezten. "Udalaren konpromezu handiena lurjabeekin zenez, horretan gastatzen hasi ginen. Ondoren, 13 milioi gelditu ziren eta horiek kobratzeko zeuden enpresei ordaintzeko eta gauzak bukatzeko erabili dira". Une honetan Udala abala ejekutatzen ari da: alde batetik, lehenik zeuden zorrak ordainduz; eta bestetik, garajeen erabilera legeztatzeko behar diren obrak egin eta ordainduz.

Plazan ere arazoak

Orain, arazorik handiena plazan gelditzen da. Berritu egin behar da garajeetara ura sartzeko delako. Eta aurrekontua 10 milioikoa da. Udalaren iritziz, erantzuleak bat baino gehiago dira: Zurich aseguruak, arkitektuen zuzendaritza, aparejadoreen zuzendaritza eta promotorearen ordean Udalaren abala. Hau kontuan hartuta, Udalak guztiekin hitz egin du kostuak denen artean ordaintzeko. Oraingoan, guztien adostasuna jaso du hitzez, eta

akordioa sinatzea falta da. "Hori horrela bideratzen ez bada, daukagun abala ez da nahikoa izango obrak bukatzeko".

Bizilagunak bezalaxe, Joxe Antonio Altunak ere nazkatuta eta bukatzeko gogoz dagoela azaldu digu. "Enpresa eraikitzaileak gehiagotan ere porrot egin izan dute, Bizkarreko etxetan bezala. Urtetan geldirik egon ziren.

Usurbilen eraiki diren babes ofizialeko lehen etxebizitzak izanik, zorte txarrak Udalarik behar ez ziren tira-birak sortu dizkio. "Borondate osoz hasi nintzen lanean" dio Joxe Antoniok "lurjabeekin tratuak egin eta abar. Batzuk pozik gelditu dira, beste batzuk ezkor eta beste batzuk ez didate ezer esaten. Asetasun gehiago behar zen eta kezka, hutsunea da gelditu zaidana".

Alkateari eta bizilagunei, guztiei, buruhauste haundiak eman dizkiete Galtzaragainako etxebizitza eta garaje hauek. Denak ilusioz hasi ziren eta Anaiak enpresaren porrotak prozesua belztu du.

Bigarren faseko 48 etxebizitzetan ere arazo batzuk izan dira, baina normalak, horrelako eraikuntza guztietan gertatu ohi direnak. Gainera bukatu dira, eta nahiko ondo. Herrian egitekoak diren gainontzeko etxebizitzetan ere gauzak hobeto joango al dira!

**Ainhoa Azpiroz**

*Erropa, opari eta bitxiak*

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

*Kale Nagusia, 9 - ☎ 37 32 04*



BARATZA  
FRUTADENDA

Aukera zabala  
zure eskura

Ondo pasa santixabelak!

Eguzkitza, 4 USURBIL  
Tlf. 36 49 81

Ondo pasa  
santixabelak!

Bordaberri, 3  
Usurbil

☎ 36 29 70

PUBLIZITATEA

# INTURAK FERNANDO

Bizkarre, 6 Usurbil  
Tlf. 36 60 19 / 36 34 60

*Ondo para!*  
Margoak eta  
paperak

Sintasola,  
moketa,  
kortxoak eta  
tarima  
jartzen dira



## TABERNA

*Giro aparta  
sartzen besterik.*

Irazu kalea, 9  
Tlf: 36 02 17



*mota guzietako errotyuloak*

| i  
F : l



USURBILGO  
EUSKO ALKARTASUNA  
Jai zoriontsuak  
herritar guztioi!

**EZKER  
BATUA** *iu*

*Usurbilgo*

# HERRI BATASUNA



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu  
usurbildar guztioi eta agur bero  
bat gogoz kontra kanpoan  
zaudeten denoi!



EAJ-PNVk usurbildar guztioi jai alai  
eta baketsuak opa dizkizue

OIARDO  
UDAL KIROLDEGIA



Uztailaren 2an eta 3an itxita  
Oporrak uztailaren 28tik  
abuztuaren 24ra

USURBIL  
TLF.: 37 24 98





**ORKO**  
**ORNETAKO**  
**DENDOT** Santixabel  
 Aritzeta 2-2 Usurbil zoriontsuakuztioi!

**JUANTXO**  
**Burdindegia**  
*Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!*  
 Kalenagusiangaude,  
 10. zenbakian!

**Telesforo Ardoak**



Jai zoriontsuak usurbildar guztioi!  
**Kale Nagusia, 25**  
**Telf. 36 12 20**

**USURBIL**  
 O P T I K A



*Ondo pasa santixabelak!*

*Lentilen likidoak %17ko deskontuarekin*  
*Eguzkitako betaurrekoak %10eko deskontuarekin*

Irazu kalea, 9-11. 20170 Usurbil  
 Tlf. eta Faxa: 37 02 69 (Gipuzkoa)

**UKE EZIN H E**

Buru-azalar enzaïnketa  
 Ile-apainketa

*Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!*

**Etxebeste, 3 Tel. 37 16 85**

**Aratzain**



*ingardotegia*

Aratzain-Zehar zuerrin  
 Kalea 3 20170 Gipuzkoa  
 e 36 28 74

*Jai zoriontsuak opa dizkizuegu*  
*Aratzain guztioi!*

*Urte osoan zabalik*  
*Udan terrazan lasai egoteko aukera*

**PATRI**

**JATETXEA**

Eguneko bazkariak eta afariak

Santixabelon!

Nagusia,6  
 Tlf 36 27 25

20170 Usurbil  
 (Gipuzkoa)



**LE MANS**  
**ASEGURUAK**

**PIKABEA AGENTZIA**

- Istripuak
- Autoak
- Etxeak
- Komertzioak...
- Prezio onean
- Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe

*Jaizoriontsuak usurbildar guztioi!*

Uzturre plaza, 8 LASARTE-ORIA Tlf 37 11 18/37 19 97



**ANORGA**

Mertzeria eta Usaindegia

*Jai zoriontsuak opa dizkizuegu usurbildar guztioi!*

Kale Nagusia,3  
 USURBIL

Tlf 36 42 66  
 20170



**Irrati**  
 taberna



## Usurbil UEMAN sartu zen ekainaren 15ean

Usurbil Udal Euskaldunen Mankomunitateko kide bihurtu da. Aparteko batzarraldian, udaletxe aurrean bildu zen udal batzarra joan den ekainaren 15ean. Herri Batasunako 7 zinegotzien Eusko Alkartasunako 2en eta **Izaskun Maiz** independentearen baietzarekin (EAJko zinegotziak eta PSOEkoa ez ziren aurkeztu) Usurbilgo udalak UEMAn sartzea erabaki zuen UEMaren estatutoak onartu eta hitzarmena siñatu ondoren. Aurrez, UEMari adostasuna erakutsi zioten herriko 40 elkarte baino gehiagok. Hemendik aurrera **Luis Mari Ormaetxea** (EA), **Izaskun Maiz** (independiente) eta **Kerman Rekondo** eta **Xabier Pikabea** (HB) zinegotziek ordezkatzeko dute Usurbil UEMAn.



## Uholdeen kalte pribatuak zehaztu dituzte



Ekainaren 1ean izandako uholdeek eragindako gale-erak haundiak izan dira Usurbilen. Aurreko alean datu batzuk eman genizkizuen arren, datu zehatzagoak ditugu orain. Kalte pribatuak:

- 19 etxebizitza (76 milioi)
- 4 industria (30 milioi inguru). Industria batzuk (Michelin, -Ucin, Luzuriaga...) ez dute kalteen parterik eman.
- 5 komertzio (25 milioi inguru)
- 88 kotxe (70 milioi inguru)
- 46 lokal edo garaje (45 milioi inguru)
- 57 lurrak, baratzak, landareak

## Giro ederra Kalezarko San Juan festetan

Aurten ere San Juanak etorri dira, eta bizi-legeak agintzen due bezala, joan ere bai. Baina tarte horretan urteko egunik luzeenaren (beste batzurentzat gaurik motzena dena) su eta sorginkeriaz gozatzeko aukera izan dugu. **Gozategi taldeak**, **Tapia eta Leturia Bandek** eta **Aihora eta Eiderrek** musikaz bete dituzte festetako gauak; **Jon Sarasua** eta **Nahikari Gabilondo** San Joan eskearen ohitura zaharrari jarraitu diote eta nola ez, **Gorritiren Showarekin** haurrek ezin hobeto pasa dute. **Dantzari**, **buruhandi** eta beste ekintza ugari jadanik datorren urteko festei begira daude, izan ere, jaiak bueltatuko direla ziurra da; San Juan!



**ORBELDI**

**MARKEL OLAIZOLA**  
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



**GENERALI**  
Aseguru Konpainia

Jai zoriontsuak  
Usurbildar guztioi!

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07  
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

**MAHUKA**



**GAZTE DENDA**

Zorionak eta on  
pasa herriko fest

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06

**Andatza**

karr ozeria

Gumer Sánchez

**Festa zoriontsuak!**

Osinalde industrialdea

Errota Berri kalea

USURBIL

☎ 36 36 77



## HAIMAR ESPAINIAKO TXAPELKETAN

Eta nola ez, txirritu-laritzan Haimar Zubeldia aipagai. Oraingotan Gipuzkoako txapelketa irabazi du 23 urtez azpikoetan. Hernanin, ekainaren 22an, San Juan sari garrantzitsuan laugarren postua eskuratu zuen eta bide batez Melillan jokatzen ari diren Espainiako Txapelketan Euskadiko selekzioa ordezkatzeko aukeraturatua izan da 23 urtez azpikoetan. Laister batean bere peña izango du Haimar Zubeldiak, herrian hori zabaltzen ari da behintzat.



**P**asa den ekainaren 11tik 15era bitartean **Aitor Egileta, Aitziber Elortza, Aitor Irazusta** eta **Arantxa Txapartegi** Laponiara joan ziren (Finlandia iparraldean) Donostiako "Goizargi" dantza taldearekin bertan ospatzen zen jaialdian parte hartzera. Bertan Italia, Alemania, Errumania, Latvia, Urmurtek eta Finlandiako dantza taldeen dantzak ikusteko aukera izan zuten. Argazkian Aitor, Arantxa Txapartegi, Aitor Egileta eta Aingeru Esnaola pasa den urtean Italian.

## ARETO FUTBOL TXAPELKETA

Antxeta futbol aretoko taldeak antolatzen duen txapelketa azken txanpan sartu da. Ligaxkako partiduak Santuenean jokatu ondoren Oiardo kiroldegian izan ziren final zortzirenak, eta final laurdenak ekainaren 28 eta 30ean jokatuko dira. Hona jarraian 4 neurketa horiek:

Interplox- Txirpi,  
Xabier Taberna-  
Aldabaldabaldarrak  
Iruretagoiena- Usurbil  
Optika  
Intringulis- Saltxipi.



**G**ipuzkoako liburu-saltzaileen elkarteak "Zilarrezko Euskadi" saria eman dio Juan Mari Torrealdai idazleari. "Euskal kultura gaur. Liburuaren mundua" bere azken lanak lortu zuen onespren haundiena Donostiako liburu azokan euskaraz argitaratutako liburuen artean. Horregatik, Usurbilen bizi den idazlearentzat izan da Gipuzkoako liburu-saltzaileen elkarteak euskarazko liburuei eman dien lehen zilarrezko Euskadi sari hau.



**E**sther Mugertza tolosarra izan genuen gure artean joan den ekainaren 18an, berak eta **Amalia Elosegik** 1994an Turkiatik Birmaniara bizikletaz egin zuten bidaiaren berri eman asmoz. Diapositiba emanaldi honetan Turkia, India, Tibet, Txina eta Asiako lurralde ezezagunetan zehar egin zuten 10.000 kilometro inguruko bidaiaren nondik norakoak agertu zituen. Thailandiaraino joatekoak ziren, baina Birmanian **Esther** gaixotu eta itzuli egin behar izan zuten.

Ondo pasa santixabelak!

**ETXEBESTE  
JATETXEA**

**EGUNEKO BAZKARIAK**

Aginaga (Usurbil) Tel.: 36 27 40

**ARRANDEGIA  
MIKEL**

Gaztañazpi, 1 - Tel.: 36 63 56  
USURBIL



ONDO PASA  
BARTIXABELAK!

SERIGRAFIA  
T A n P O G R A F I A

**LOSU**  
Ugaldea poligonoa 36 - 2<sup>a</sup> Esk  
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETa  
IRA GARKI SERIGRAFIA  
KAMISETEN INPRIMAKETA

## "Sartu ta bultza" gogor bizikleta horri

**E**z dira txirindulari profesio-  
nalak, ez dira elite mailan  
ibiltzen, baina beren mailot  
propioa dute. "Sartu ta bultza"  
txirindulari talde berriaz hitze-  
giten ari gara. Martxo-a-piri-  
laz geroztik mendian edo erre-  
pidean hor nonbait ikusiko  
zenituen hori eta more kolore-  
ko mailotekin txirindu gaine-  
an. Usurbildarrak dira gehie-  
nak, Zubieta eta Kalezarkoak,  
eta oraingoz 12 kidek osatzen

Bizikletan ibiltzea gustokoa  
dute. **Jon Mikel Lizaso** taldeko  
kide baten arabera Anda-  
tzara, Kukuarrira... askotan joa-  
ten omen ziren lehen ere,  
baina bakoitza bere jantziekin.  
*"Sarritan Donostiako "Kant-  
mandu" taldekoak, Andoain-  
go "Leitze"koak ikusten geni-  
tuen beren mailotekin, guztiak  
berdin jantzita. Hura ikustean,  
guk ere berdina egin geneza-  
keela pentsatu genuen eta  
babesle baten bila hasi ginen.  
Ez genuen lortu, baina bakoit-  
zak bere poltsikotik ordaindu  
eta mailotak atera genituen".*

Dortoka bat bizikleta gaine-  
an, hori da talde honen logoti-  
poa. Izena berriz, "Sartu ta bul-  
tza". Jon Mikelen esanetan,  
*"hanketako muskulu bikia  
pedal automatiko baten gai-  
nean jarri eta hori logotipotzat  
hartzea zen gure asmoa. Izena  
ere logotipo horrentzat egina  
zen".* Azkenean logotipo hura  
ez zen aurrera atera, baina  
izena bere horretan uztea era-  
baki zuten.

Astegunetan bakoitza bere  
aldetik ibiltzen da, lana, ikas-  
ketak denak elkarrekin ibiltze-  
ko oztopoak dira. Horregatik,  
asteburutan elkartzen dira,  
larunbat arratsaldetan, igande  
goizetan, ahal dutenak behin-  
tzat, bizikletan ibiltzera joate-  
ko.

Orain arte trabesia batzuk  
egin dituzte. **Jon Mikelen** esa-  
netan, *"txapelketetan parte  
hartzeko asmorik ez dugu,  
nahiz eta batzuk mendiko bizi-  
kletaz jeitsieretan (descenso)  
parte hartu nahi zuten. Hala  
ere, txapelketa hauek egiteko  
dirutza haundia behar da, eta  
bertan behera utzi behar izan  
dugu asmo hori"*

Ekainaren 21ean Sabi-  
ñanigon "Quebrantahuesos"  
zeharkaldia egin zuten taldeko  
lau kidek. 205 kilometro egin

dituzte eta nahiko zaila egin  
zaiela aitortu digu "Sartu ta  
bultza"ko txirindulariak.

**Jose Mari, Iñaki eta Aitor  
Ikutza, Jon Mikel eta Luis Mari  
Lizaso, Kristian Febrero, Xanti,  
Imanol eta Joxe Antonio  
Azurmendi, Juan Inaxio  
Bengoetxea, Joxe Antonio eta  
Juan Mari Ugarte eta Imanol  
Txapartegik** osatzen dute tal-  
dea. Aurrez esan bezala 13  
kidek osatzen dute taldea.  
Hala ere, taldean sartu eta  
mailot bat nahi duten guztiak  
ateak zabalik dituzte. 5.000  
pezeta inguru eta bizikletan  
serio ibiltzeko gogoia eskatzen  
dute soilik.

Mailota badutenez, hemen-  
dik aurrera taldekide guztiak  
kulote berdinak edukitzea da  
beren epe motzeko helburu  
nagusia.



## MENDIGAIN INMOBILIARIA

Eguzkitzak etxebizitzak,  
lokalak eta garajeak

*Ondo pasa festak!*

Palazio, 28-1.  
Donostia 20.000

Tlf. 21 79 86

## BIDEO IKUSKA

Pelikulaberriak eta azken nobedadeak zure

"Glimmerman", "Memoria letal",  
"Dragonheart", "Sleepers"...

Laister:

"Pánico en el túnel", "En el nombre del hijo",  
"El paciente inglés", "Rescate", "Evita"...

Disney pelikula salgai

K/ Nagusia, 35 - T el.: 37 10 98



## Uholdeak, frontoiko eserlekuak, ileapaindegia...

**E**kainaren 15ean, aparteko batzarraldian, Udal Euskaldunen Mankomunitatean sartzea erabaki zuen. Hala ere, herriko etxetik informazio jariora etengabea da. Ekainaren 24an, San Juan egunean, egin zen ohizko batzarrean hartutako erabakiak irakurriko dituzue segidan.

Lehendabizi Txokoaldera goaz. Bertan, trenbidearen igarobidetik erriberako bideraino oinezko pasoa eraikitzekotan direla gauza jakina da. Proiektuak kaltetutako ondasun eta eskubideen hasierako zerrenda haseraz onartu zen martxoan. Proiektuak kaltetutakoekin hitz egin ondoren hauek beren alegazio edo eskaerak aurkezteko aukera izan dute. **Iñaki Illarramendik** bide berriaren inguruan duten ur depositua mantentzea eskatu zuen eta **Joxe Angel Aginagak** ere hainbat eskaera egin zituen. Udala, bi hauekin akordio batera iritsi da eta ez dago arazorik. Honela, Txokoalden oinezko pasagunea eraiki ahal izateko proiektua behin betikoz onartu da.

Galtzaragainaren 2. fasea

Gatozen orain Kaleberrira. Izan ere, Galtzaragaina 2. faseko urbanizazioa udalak beregain hartzea erabaki du behin betiko. Hasteko zenbait lan egin beharko ditu udalak:

-Etxeen arteko plazan okertuta dauden bi farolak eta ibil-



Ekainak 1eko uholdeek kaltetutakoentzat erraztasunak emango ditu udalak

gailuen sarrera galerazteko dauden altzairuzko bi zutoinak egoera egokian jarri.

-Jardinetan belarra erein eta hazten denean moztu.

-Alkorkeetako belarrak atera eta azpiak txukundu.

-Munalurra kalean puskaturik dagoen zuhaitza landatu.

-Elbarrientzako dagoen estruktura azpian, lurra berdindu eta belar hazia erein.

Frontoiko tribuna berria

Frontoiko estalki berriaren lanak bukatzeko daude. Santixabelak gainean ditugu, eta badirudi lanak epe barruan amaituko dituztela. Hala ere, azken orduko aldaketekin gastuak gorantz doaz. Aurreko alean esan genuen: frontoian tribuna berria jarriko dute. Hiru enpresei aurrekontuak eskatu ondoren eserleku

berriak Talleres Amondarainek egingo ditu, 3.018.800 pezetako aurrekontuarekin.

Ileapaindegi ikastaroa

Datorren urtean hastapen tailerrean ileapaindegi ikastaroa egitekotan dira. Agerialdeko lokal batean izango da eta altzari eta material egokia erosi beharrean dago udala. Horregatik, Tolosako hastapen tailerrari ileapaindegiko materiala erosiko zaio 520.000 pezetan.

Uholdeek utzitako kalteak


Ekainaren 1eko uholdeek eraikin pribatu ugari kaltetu zituzten. Kaltetutako pribatuek beren eraikinak lehengo egoeran jartzeko erraztasunak ematea erabaki du Udalak. Beraz, itxura mantenduz, kaltetutako

### ARGILAN

Etxetresna elektrikoak

Santixabel  
Zoriontsuak  
Opardizki zuegu!

Kontzeju zaharra, 13 Usurbil ☎ 36 13 80



Kale nagusia, 9 Tel. 36 48 00

Aginaga Tel. 36 19 07

KIROLAK  
JOSTAILUAK

Lourdes  
Zorionak!

Gaztañazpi, 1 Tel. 37 03 90

Usurbil

## "Agiña", piper ontziratua dastagai

**U**surbilgo Piper Elkarteak Usurbilgo piperraren aurkezpena egingo du Santixabel egunean. Piperra ontziratzeke proiektua gauzatzeko dago. Udalak utzitako lokala egokitu dute ja eta lehenengo piperrak ontziratutuzte, erakusgarri gisa bada ere.

Usurbilgo Udalak Behemendi Beterriko Mendi Nekazaritza elkartearen laguntzaz herriko baserrietan inkesta egin zuenetik denbora asko pasa da. Bertan, Usurbilgo baserrietan piperrak zuen garrantzia haundia zela argi gelditu zen, 80.000 kilo piper produzitzen baitira urtean.

Udalaren asmoa Usurbilgo piper ekoizle guztiak edo ahal zen gehienak elkarre batean biltzea zen. Ez ziren denak ausartu, baina piperra ontziratzeke proiektua martxan jarri zuten zenbait piper ekoizleak. **Jose Pagola, Inaxio Murua, Francisco Orbegozo Jose Mari Zaldua, Pedro Mari Matxain** eta **Iñaki Labaienek** osatzen dute Usurbilgo Piper Elkarte, 4 aginagar, kalezartar bat eta Kaleberriko beste bat.

Orain arte ontziratzen zutenen saltzen zizkieten piperrak. **Pedro Mari Matxainen** esanetan, "borroka haundia izaten zen ekoizle eta ontziratzen zutenen artean. Guk beraiei saltzen genizkien piperrak, baina prezioak haiek ezartzen zituzten". Aurrerantzean dena

ezberdina izango da. Ekoizle izatek ekoizle-ontziratzaile izaera pasa dira. Piperrak ontziratutako ahal izateko baliabideak dituzte, udalaren lokal bat egokitu berri dute horretarako eta lehenengo piper potoak atera dituzte, aztertzeraz bidaltzeko.

Oraingoz gustora daude. Proiektuari hasiera eman diote, baina zailena hemendik aurrerakoa izango dela argi dute. "Lokala jarri dugu, baina nola funtzionatuko dugun ez dakigu. Berde xamar gaude, lehenengo aldia da eta gauzak nola egin hitzegin beharra daukagu. Hiruhilabeteko lana izanik makinaria haundirik ezin da jarri eta funtzionamendua erabaki gabe daukagu oraindik". Izena behintzat erabaki

dute. "Agiña" izenpean komertzializatuko dute piperra.

"Irisasi, Sari... izen ugari atera ziren. Guk izen motxa nahi genuen eta gehienak aginagarrik direnez... Jada, Madrilen onartu dute izen hau, orain dela gutxi erregistratu baitute."

Etorkizuna nola ikusten duten? Eskariaren arabera etorkizuna dutela badakite. Komertzialen esku utziko dute salmenta, "kalitate eta prezioarekin jokatu beharko du honek. Inork uste baino piper ontziratzaile gehiago dago". Hala ere, aurten labelean sartzea da Usurbilgo Piper Elkartearen helburua. Laguntzak jasotzeko ezinbestekoa da hori.

**Josu Aranberri**



Usurbilgo Piper Elkarte osatzen duten ekoizleak udal aretoan egindako bilera batean.

**gorriti**  
EDARITEGIA

**kafe berezia**

ETXE-ALDIA, 1  
TLF 36 27 70

*... eta beste asko ere*

20170  
USURBIL



**URTINEA**  
**LORATEGIA**

*Lore eta lore landareak*

*Jai zoriontsuak*  
*herritar guztioi!*

San Esteban  
Tlf. 36 22 55

# Lehiaketa

Sanjuanetatik Santixabeletara pasatzear gaude, eta hurrengo galdera festen gainean doa. Pixkat fijatu ezkeru, erraz asmatuko duzue:

## Zenbat buruhandi aterako dira Santixabeletan?

Ez da lan handia festerako, eta horren truke **Arrate** jatetxean bi pertsonentzako afaria zozkatutako dugu. Bidali erantzunak kale nagusiko 37. egoitzara, eta zorte on!



Argazkia: Ekaitz




**Edorta Eguesi** egokitu zitzaion **Antxeta** jatetxe-ko afaria. Galderaren erantzuna, ordea, **Ibai Orenarekin** batera asmatu zuen, eta biak agertu ziren argazkia ateratzera. Afaltzera ere biak "mano a mano" joateko asmoa agertu zuten. Gainera, Edortak ekainaren 21ean urteak betetzen zituela aprobe-txatuz... Ba, zorionak bi aldiz Edortak!

Kalezarko festetara joanda edo joan gabe, askok asmatu duzue oraingoan gure galderaren erantzuna: Kalezarko elizak **Sokorroko Ama** du izena, eta **1704. urtean** egin zuten.

Erantzunak asko, baina **Bordatxoko** afaria bi pertsonentzako da, eta oraingoa **Maria Azkonobietari** egokitu zaio. Zorionak eta on egin, Maria!

# Komikia



Mari Jose Korfa

*Laurok*  
Liburudenda



# Kima



MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Xabier Carbayeda eta Goyo Martin

Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA

Ondo igaila a paratuta

TEL. 36 61 97

# BAYMUE

Etxetresna elektrikoak

Bainugelak,  
sukaldeko altzariak eta tresnak  
eta opariak

**Ondo pasa festak!**

Zubiaurrenea, 3 ☎ 36 57 42

ALPERROBURU KALEA-BEHEA  
20170 USURBIL TLF 36 34 48



## EKAINAK 27 ostirala

- **Zumarteko abesbatzak kontzertua** eskainiko du **Altzako elizan** arratsaldeko **20.00**etan.
- **Larrua Truk-en** kontzertua **Beasainen**. Arriaren auzoan, gaueko **12**etan.
- **SENIDEAK-en** manifestazioa. Arratsaldeko **20.00**etan.

## EKAINAK 29 igandea

- **Larrua Truk-en** kontzertua **Lasarteko txoznetan**. Gaueko **22.00**etan.

## EKAINAK 30 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!-ren** kontzentrazioa errotondan. Arratsaldeko **20.00**etan.
- **Aitzaga Kultur Elkarteak Ibilaldiaren bideoa** ikusteko aukera emango digu frontoian, arratsaldeko **20.00**etan.

## UZTAILAK 5 larunbata

- **Bertso jaialdia** frontoian. Bertan **Jokin Sorozabal, Jexux Mari Irazu, Xabier Zeberio** eta **Xabier Euskitzek** parte hartuko dute. Gaueko **22.30**etan.

## UZTAILAK 7 astelehena

- **Usurbilgo Odol Emaileak** jakinarazten du arratsaldeko **19.00**etatik **21.00**etara **odola eman** ahal izango dela Usurbilgo **anbulategian**.
- **Euskal Herria Askatu!-ren** kontzentrazioa errotondan. Arratsaldeko **20.00**etan.

## UZTAILAK 11 ostirala

- ✓ **Larrua Truk-en** kontzertua **Hondarrabiko** gaztetxean.

## FRONTOIAREN INAUGURAZIOKO EKITALDIAK

### Ekainak 27

\*Herri arteko partiduak.  
**Usurbil eta Lasarte**

### Ekainak 28

\*Gaueko **22.00**etan:

#### Alebinetan:

**Portu/Orena**(Usurbil) vs. **Gurrutxaga/Aranalde** (Usurbil eta Orio)

#### Helduetan: **Esnal/Gastezi**

(Hernani eta Altza) vs.

**Olaizola/Apezetxea** (Goizueta)

#### **Berasaluze VIII/Azkarate**

(Bizkaia) vs. **Esain/Iparagirre** (Nafarroa)

### Uztailak 2

\*Arratsaldeko **17.00**etan:

Jubeniletan: **Izagirre/Zarautz** (Usurbil) vs.

**Ibarreta/Kastresana** (Usurbil).

Ondoren, **profesional mailako** partidua



Argazkia: Ekaitz

## OHARRAK

- ✓ **Umeak zaintzen dira udan.** Deitu **36 66 39** telefonora.
- ✓ **XXI.Santixabel Bertso paper Lehiaketa.** Gaia: Frontoiaren eraberriketa. Edozein doinu eta neurritan gutxienez 8 eta gehienez 12 bertso. Udaletxean utzi behar dira, **ekainaren 27 baino lehen.**
- ✓ Kiroldegiko saunan edo inguruko geletan 2 zintzilikariodun **kate bat** eta **2 pulsera** galdu nituen, bata Ana Isabel izenarekin. Norbaitek aurkitu baditu deitu iluntzetan **360002** telefonora.
- ✓ 10-12 tailako **errealako txandala** hartuko genuke erregalatuta edo bestela merke erosi. Deitu iluntze-

tan, **360002** telefonora

- ✓ **Zubietako Herri Batzarrak Herri-Batzarrerako logotipo** edo **ikurra** asmatzeko lehiaketa ireki du. Aurkezteko **epea uztailaren 7an** bukatzen da, eta Alamandegiko udal-aretoan aurkeztu behar da. Saria emateko aintzat hartuko dira arrazoi historiko eta estetikoak. Irabazleak **Alamandegin bi laguntzako afaria** eskuratuko du.

## LANPOSTUAK

- ➔ **Legazpiko Udalak Gizarte Ongizate Sailerako Administrazio laguntzaile** bat behar du. Izena **Uztailaren 3a baino lehen** eman beharko da. Informazio gehiago **GAOren 105. zenbakian** edo **Legazpiko Udaletxean.**

# BAZKIDE TXARTELA



5.000 PEZETAKO URTE OSORAKO

Izena: \_\_\_\_\_  
 1.Abizena: \_\_\_\_\_  
 2.Abizena: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Herria: \_\_\_\_\_  
 Tfnoa: \_\_\_\_\_  
 Kontu Korrontea (20 digito): \_\_\_\_\_

H A M A B O S T E K A R I A  
**Noaua!**



Noaua!  
aldizka-  
riak urte  
bat bete  
du zuen  
artean.









## Beste urte batez, Santixabelak iritsi dira

**U**rtea luzea egin bazaigu ere, azkenean ate joka datozkigu Santixabelak. Batzuek egunez gozatuko dituzte festak, beste askok gauzez, eta gutxi batzuek egun eta gauzez. Baina parranda eta giro onaz gozatzeko lan ugari egin beharra dago. Horretaz arduratzen da Usurbilgo Jai batzordea.

Askorentzat arraroa gerta badaiteke ere, festen prestaketa urte amaieran hasten da. Garai horretan lotzen dira jaietan joko duten musika taldeak. Kontaktua egin, eguna moldatu, diru kontuak eztabaidatu... Ez dute lan makala egiten batzordekoek gero guk dantza egin dezagun.

Bigarren pausua, berriz, urte hasieran ematen du Udalak herriko taldeei deialdia luzatze-

an. Bilera honetara agertzen direnak festen prestaketaren lan guztia banatuko dute. **Aitor Egileta**, Jai batzordeko kidearen esanetan, "*normalean bilera honetara 12 bat lagun etortzen gara, eta hauen artean ateratzen ditugu aurrera festak. Zenbait kasuetan banaketa eginga egoten da. Adibidez, haurren eguna Udarregi ikastolak antolatzen du; Euskal presoak Euskal Herrira! eguna Gestorak...e.a.*"

Aitorrek azaldu digunez, behin lana banatuta, lan talde bakoitzaren esku dago eginbeharrekoa aurrera eramatea, "*baina normalean hemendik aurrerako lana nahiko sistematikoa izan ohi da*".

Diru kontuei dagokionez, Santixabel festek bost milioi

pezetako aurrekontua izaten dute, gutxi gora behera. Hauetatik milioi edo milioi t'ardi musika taldeak ordaintzeko erabiltzen da.

Taldeen gain, ordea, haurren egunerako materialak, zikiro janaren lehengaiak, maskotak eta azken eguneko piroteknika ere eramaten du, besteak beste, aurrekontu honetako zati garrantzitsua.

Baina ziurrenik datu guzti hauek baino garrantzitsuagoa da herrian jaiak aurrera ateratzeko prest dagoen talde bat daukagula kontuan izatea, baita egiten duten lanaren garrantziaz jabetzea ere.

Lana eginga dago; orain usurbildar guztiok Santixabel on batzuk pasatzea besterik ez da falta! Horrela izan dadila!



*Santixabeletan guztiok primeran pasa dezagun gutxi batzuk aspaldidanik dabilta lanean jo eta su.*

**LURDES FRUTAK**

*Festa zoriontsuak!*

Irailaren 1etik 15era oporrak

Bizkarre, 3  
Usurbil

☎ 37 23 68



**LABE-TXIKI**

**FESTA ZORIONTSUAK PASA!**

Kale Nagusia, 2  
Tif 37 33 48  
37 09 13  
**USURBIL**

**edaritegia**

Aukera zabala bokadilotan

Zorionak eta ondo pasa herrikojaietan!

## Maskotaren misterioa Santixabeletan

**S**antixabel bezpera. Arratsaldeko 5.00ak. Jendea frontoiaren inguruan zerbaiten zain. Zer izango ote da? Nondik lotu behar dute? Estalki berriarekin arazorik izango al da? Bai, denak Santixabeletako maskotaren zain daude. Maskotaren igoerarekin emango zaie hasiera, aurrez zenbait ekitaldi badaude ere, aurtengo jaiiei.

Sorgiña, ixabelita, ilargia, oiloa, sugea, oilasko biltzaileak, txapela mingainaren gainean, olagarroa... hainbat eta hainbat maskota egon izan dira azken 17 urte hauetan frontoiko estalki zaharraren azpian. Aurten, lehenengo aldiz, estalki berriak babestuko du Santixabeletako jaien sinbolo bihurtu den maskota. **Patxi Azpirozen** ideia izan zen lehenengoa, botika 2000ko gazteek egin zituzten ondorengo urteetan; **Aitziber Elorza** eta bere koadrilaren eskuetatik pasa dira azkenengoak, eta aurten, **Usurbilgo Gazte Asanbladak** hartuko du maskota egitearen ardura.

Festa guztietan jaien sinbolo bat egon ohi da, jendeak bere tentsio guztiak sinbolo horren gain jartzen ditu eta Usurbilen maskota dugu sinbolo hori. Hori da, lehen maskotak egiten ibili zen **Joseba Aierbek** pentsatzen duena. "Maskotak Santixabelak gogora arazten ditu. Santixabel jaietan edozeini maskota zer



*den galdetu, eta zihur badakie-la; beste edozer gauza ez, baina maskota zer den bai. Jendea fijatu egiten da, bere jai gogoa maskotarengan jartzten du".* Horregatik noiz jartzen den, maskota zer izango den, misterio hori gordetzea eta erre-tzea oso garrantzitsua da.

Maskota jaiiei hasiera eta amaiera emateko

Lehenengo maskota egite-koan Santixabelen sinboloa sor-tzea zen helburu nagusia.

**Josebaren** esanetan, "jaiak lehen diana edo buruhaundie-kin hasten ziren eta suzko zeze-narekin amaitu. Gauza guztiak hasiera bat eta amaiera bat dute. Guk hasiera eta amaiera hori maskotaren bidez adierazi nahi izan genuen 1980. urtean lehen aldiz maskota egin

*genuenean . Honela urtez-urte, denborarekin jendea maskota-rekin identifikatzea joan da, beren desio eta gorroto guz-tiakmaskotyarengan bideratuz".* Honela Santixabel jaiak masko-taren igoerarekin hasi eta mas-kotaren erretzearekin amaitzen dira. Maskota hor dagoen arte-an festen izpiritua mantentzen da, jaietan gaude, baina behin maskota erretzean jaiak amaitu direla badakigu.

Maskotak urte bateko Santi-xabelak datorren urtekoarekin ezberdintzen ditu. "Jendeak jai batzuk maskota batekin identif-ikatzen ditu. Maskota ezberdina izanda jai hoiek iazkoaren ber-dinak ez direla badaki. Are gehiago, usurbildar askok zen-bait gertakizun ez ditu urteare-kin lotzen, maskotarekin baizik"



ZUMET A  
JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMET A MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Itsaskientsaladahozber oatrufa zaporez
- Zapoatxangurr ozbeteriketaitasaki saltsaz
- Aspizuna patatapur e, onddo eta pikilopiperraz haragi saltsatan
- Etxeko azken buruko endegustazioa
- Ardo berezia eta kafea

3.200 pta.



**Jai  
zoriontsuak  
opa  
dizkizuegu!**

Solarium  
Depilazioa

**Ileapaindegia**

NAGUSIA, 2 - Tf 37 28 44 - 20170 USURBIL (GIPUZKOA)



## Soka dantza ikastolako irakasleek dantzatuko dute



Iaz udaletxeko zinegotziak izan ziren; aurten, berriaz, Udarregi ikastolako irakasleen txanda izango da. **Joxe Ramon Oiarbide, Itziar Illarramendi, Joseba Berriozabal, Inaxio Unanue, Mertxe Loiola, Dioni Beraetxe, Arantxa Iribar eta Mendi Gorostiaga** izango dira **Santixabel egunean Soka dantza** dantzatuko dutenak. Duela hilabete inguru hasi ziren entsaiatzen, baina uztailak 2ko eguna hurbiltzen den einean, entsaioko ordu kopurua ere haunditzen ari da. Irakasleek **Iñaki** eta **Arantxa Urkia** izango dituzte maixu. Iñaki Urkiak azaldu digunez, "*Jai batzordeak proposatu zidan aurten ere Soka dantza irakastea, eta oso gustora onartu dut*". Irakasleek ikasitakoa ikusteko aukera aparta izango dugu.

## Zaharren bazkaria Saizar Sagardotegian izango da

**S**antixabel festetan ez du hutsik egiten herriko "beteranoen" bazkariak. Orain arte Agerialde ikastetxean ospatu izan da otordu hau, baina aurten ohitura hau aldatu egingo da. Izan ere, aurten Saizar Sagardotegian ospatuko baitute **Zaharren eguna**. Aldaketaren arrazoi nagusia erosotasuna izan dela aipatu digute antolatzaileek. Jende ugari behar zen bazkaria zerbitzatu eta prest ateratzeko, eta era honetan antolaketa arinagoa izango da. Horretaz gain, janaria enpresa baten esku egon da orain arte, baina badirudi zenbait kexa ere egon direla janaria dela medio. Toki batean edo bestean, on dagizuela guztioi!



Agerialdeko bazkarietan sekula ez da falta izan umore ona.

## Euskal presoak Euskal Herrira! eguna ospatuko dugu jaietan



Sagardo egunean bakarrik ez, Santixabeletan ere presoak gogoan izango ditugu.

**U**ztailaren 5ean **Euskal presoak Euskal Herrira!** eguna ospatuko dugu festen barruan. Beste urtetan euskal preso politiko, errefuxiatu eta deportatuen eguna ezagutu dugu, baina aurten Euskal Herri osoan aurrera eman diren konzentrazioak eta ekintza guztiak kontuan hartuz, aurtengoan izena aldatzea pentsatu dute. Egun honetarako prestatu diren ekintzak aurreko urteetako ildoari jarraituko diote. Berritasun nabarienak Senideak-ek antolatuta duen eta herri guztian zehar dantzatuko duten kalejira errebindikatiboa eta arratsaldean herriko taldeen arteko sokatira lehiaketa izango dira.

**Osasunez urratu aurtengo santixabelak!**

### USURBILGO HORTZ KLINIKA

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 37 08 78

20170  
USURBIL



# Elkaitze

Bideo eta Argazkiak

Santixabelak 2017ko Ekainak 27

Usurbil

tlf 36 14 87

oiartzun



## Ixabelek jakin beharreko pekatuak


**E**z zekinat neska! Ez naun oso konbentzituratsua hasi. **Konpesatzia ondo zion baina Santixabeletako kontuk hiri kontatzia, Ixabel? Ez didanala kastigurik jarriko? Hobe den, bestela ia zeinek kontatu behar dizkidan datozen Santixabeletan egiten diren pekatu eta zirrizeriak. Usurbildarrak santu ta santak garenik ez haien oain esan, aldamenekoaren gantzontzilo eta kuleroak ze markatukoak diren ondo baino obeto ezautzeizkiñat eta.**

Beno, txorakeriak alde batera utzi ta festen kontakizunian hasiko gaitun. Aurten, lehengo urtian bezela Santixabel bezperan emango zaion diana herriko festei. Maskota, nun jarriko duten ez zekinak. Urte osoan arto ta irinez gizentzen euki omen diñate, ta kontuatzeko pisu gehiegil. Azkeneko aste hauetan mediku tunanteekin dabilzala eta Pronto, Hola eta holakotan ateratzen dian dieta guztiak pasa dituztela entzun diñat. Ez den posible! Frontoiko estalkia inaguratu behar eta maskota gizona! Ai amatxo maitia, ez ote din estalkia botako eh, hoixe bakarrik falta dinau.

Ba, Santixabel bezperan, ezer berezirik ez. Ikurriña udaletxera eskaileretatik igo eta tanborra ta makilakin jeitsi. Hortik aurrerakoa, no comment. Aurreko urtean Ixarren Orejak ikusi eta emozionatu! Bai hoixe. Mikelete lanetan ibili nindunan gainerantzian. Goizeko 8.00ak aldera ia festak bukatu, hori marka!. Maskota erretzen saiatu ez hitunan ba? Eskerrak Kale Nagusian zezenak zauela

esanaz engainatu nizkinan. Eusko Trenbideakeko autobusakin entzierrua egin zutela enteratu nindunan gero.

Santixabel eguna! Ai nere Ixabel maitia, zorionak! Hi baino santa hoberik ez zion munduan, ez behintzat nik ezagutzen dudarik. Baina sekretutxo bat esan behar diñat, ez aserretu mesedez. Meza nagusira ez nindunan joan, herriko eltze nagusiko azenarioak ez nizkinan sokatik lotuta ikusi eta loreak ustelduta eta salda hotzegia egongo zelakon ez nindunan plazara azaldu. Barkatu mesedez! Aurten penitentzia egingo diñat. A ze parrak **Xilipito** edo



**Joxemarron** eroitzen badira, baina zu ez txibatu, eh! Arratsalde aurreko urtekoa bezalakoa izaten bada, guatxipiruli. Badakin zein ikusi ninan? Ezetz asmatu, Su Ta Gar taldeko **Aitor Gorosabel**. Aummm! Que tio bueno! Agiña piperrekin batera jateko modukoa zegon! Ikusi egin behar hunan...

Santixabel bigarrena, umeen eguna! Eta ez hain umeena. Izane oain umeak espabilituak ditun. Aurten ere Euskal Txorakeri Telebistako **Joxe Pelipe**

**Auzmendi**, "alias todo el rato" etorriko al da?. Kamararekin grabatzera etorri eta herriko neskekin ligatzen

hasi etzan ba? Ke kara! Eskerrak herriko mutilak listuak dian. Kanpokuak usain txarra edukitzen dutela eta espumatan sartu zintaten mikrofono eta guzti, ke farras!

Beno, nazkatzen hasi naun. Prensa rosa idazten hasiko nindukenan, baina ezin. Bazakinat lau hankako adardunak ibili beharrean bi hankakoak ibili zitunala joan den urtean. Ja sabes, "adarrak motzak, zorrotz zorrotzak, harrapatzan bazaitut jo ta bertan hilko zaitut". Uste diñat inork ez zuela adar jartzeik harrapatu, hildakorik ez hunan egon behintzat. Badakin, 1992an amorrainen arrantza kendu zintaten, baina beste horren arrantza, badakin zertaz ari naizen ezta? Amua beti prest! laz izenik ez ninan hartu baina aurten, prest egon daitezela parejita guztiak, paparatz, paparatz, al hilo de la notizia gaur ta etzi!

Ai Ixabel, hainbeste kontu zeuzkanat! Hurrengo batean kontatu beharko dizkinat Xiron eta Kordobesaren manon-manokoaren ondoren **Jexux Marik** hartu zinan burukoa, Txiriboga tabernan zenbait "zerrik" egin zuten gusanito gerra eta salida de recojepollosen gorabeherak. Gehiago ez naun gogoratzen! Lehen ibilaldi neurtuak egiten nizkinan festetan, orain, berriz, ezin neurtu.

Muxux y asta el proximo año! Ya te kontare las en(am)orabuenas!

**Santixabel zoriontsuak opa dizkizuegu usurbildar guztioi!**

Zapatak, Kanpinak, Kremailerak (poltsak, zamarrak, galtzak...)

Giltzak kopiatzen ditugu



Kale Nagusia, 2 - Tel: 37 27 95



Ondo pasa santixabelak!

Aginaga  
36 27 73

BEREZITASUNAK  
**SEKAÑA** Txerrikumea,  
Auleta eta Arraina